

## Danspirenaika eta Arratiako jotea danontzat izeneko ikastaroa antolatu dauz Aikok

Aprilean izango da Danspirenaika Areatzan eta horren barri emoteko eta motorrak berotuteko, martiko domeketan, *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa antolatu dau Aikok. Izen-emoteak zabalik dagoz. Danspirenaikarako Aikoren webgunean emon daiteke izena eta *Arratiako jotea danontzat* ikastarorako 634 423 539 telefonoan whatsapp bat bialduz. **17. orrialdea**



## Agate Deuna bezperako argazkiak ikusgai

**Z**ezeilaren 4an, Agate Deunaren bezperan, Arratia, Ubide eta Zeberioko auzo eta kaleak koruz bete ziran, makilak eskuan, santearen koplak kantetan. Antxinako tradizioa da, beste sasoi, beste gizarte eta beste bizimodu batzuen oihartzuna daukana baina aldi berean, zelan edo halan, sasoi eta gizarte honetako gure auzo eta kolektibitate txikiaren pertenezia sentimentua biztuten dauana.

Erdiko orrialdeetara, koru horreetako batzuen argazkiak ekarri doguz; BEGITUREN eremuan tradizio honek daukan indarraren lekukotasuna jasoteko. **8., 9., 10. eta 11. orrialdeak**



Asterriakoak kantuan. Argazkia: Mertxe Ortuzar.

## Gorbeiaiko Parke Naturala National Geographic sarietarako hautagai



Finalista da 2025eko National Geographic Bidaia-Irakurleen Sarien Espainiako Helmuga Natural Onenaren kategorian eta beste lau hautagairen kontra lehiatuko da. Zezeilaren 21era arte emon daiteke botoa National Geographic-en webgunean. 16 kategorietako irabazleak apirilaren 22an iragarriko ditue. **7. orrialdea**

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Aratusteetarako egitarauak prestatu ditue udal eta alkarteek

Neguko jairik garrantzitsuenak dira Aratusteak eta bertan bat egiten dabe oso antxinatik datozen jai moduek, modernidade globalaren moduek; umeen desfileek eta mozorroen kalejira eta errondek; umeentzako jaialdiek eta jai paganoek. **6. orrialdea**

### IGORRE

## Ekologia eta feminismoa landuteko hiru hitzordu Igorren

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak zugatz landaketea, dokumentala eta ekofeminismoaren gaineko berbaldi bat antolatu ditu zezeilaren bigarren hamabostaldirako. Mirene Begiristain eta Amaia Perez Orozco ekonomialariak izango dira Igorren hilaren 28an. **5. orrialdea**

### IGORRE

## Gaztetxea defendiduteko manifestazioa egongo da hilaren 21ean

Sabadell banketeak bultzatuta, Igorreko Kiñu Gaztetxea hutsiarazotea ebatzi daiken epaiketea apirilaren 23an izango da. Hori dala-ta, hemendik ordura arte, herriaren babesaren bila, hainbat ekintza antolatuko ditue asanbladakideek, eta hilaren 21ean, 19:00etan, Kultur Etxetik abiatuta manifestazioa egongo da.

Aprilean, epaiketeaz gainera, Kiñuren hamaikagarren urteurrena be izango da. Denpora honetan asko izan dira gaztetxean antolatu diran kultura jarduerak, eta Arratiako talde eta eragileentzat topaleku bihurtu da. **7. orrialdea**

**EKIN**

LAN PUBLIKOAK  
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57  
ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

**GANGUREN**  
psikoteknikoa

Gida Baimenak  
Animalia Arriskutsuak  
Nautika  
Arma lizentziak  
Segurtasun pribatua  
Garabiak

ORDUTEGIA  
Asteazken eta ostegunetan  
09:00 - 13:00  
Astelehen, astearte eta ostegunetan  
16:00 - 20:00

[www.psicotecnicoganguren.eus](http://www.psicotecnicoganguren.eus) - 611 72 88 55  
info@psicotecnicoganguren.eus



# Literatura txokoa

## INDEPENDENTZIEN EGUZKIAK

1960ko hamarkadan prozesu deskolonizatzaileak bizi izan ziran Afrikako hainbat herrialdeetan. Afrikarrek europar potentziak bidali eta estatu independente barriak sortu ebezan kontinente osoan zehar, baina prozesu horretan kontraesanak sortu ziran. Ahmadou Kourouma bolikostarrak malinke-ek "independentzien eguzkiak" deitzen eben sasoi horretara eroraten gaitu eleberri honetan.

Fama malinke etniako printze tribal bat da. Uriburuan bizi da, miseria gorrian, Salimata andreagaz batera. Baina egun baten, arbasoen lurraldetik mezu bat heltzean jako: erregea zan lehengusua hil egin da eta bera da oinordekoa. Fama, zalantza

beteta, sabanarantza abiatuko da, lehengusuaren hiletara. Azken baten, merezi ahal dau tribuaren errege bihurtzea alderdi bakarreko sozialismoa ezarri dauan herrialde baten?

Liburuaren muina deskolonizatzailea bultzatu daben indar iraultzaileen eta gizarte tradizionalaren arteko talka horretan dago. Azken finean, independentzia prozesuen liderrak gizon zuriaren eskola eta unibersidadeetan ikasitako afrikarrak izan ziran, gizon zuriaren pentsakerea euren gaitakea. Estatu independenteak sortu ebezan, bai, baina kolonialismoaren muga administratioboak erabiliz, ez afrikarren muga etnikoak, eta Europan ikasitako ideetatik abiatuta. Komunismoa

ezarri gura eben —metropolian errebeldeen ideologia zana—, nahiz eta horretarako gizarte etniko tradizionalaren egitura sozial eta ekonomikoa suntsitu behar. Eta helburua lortzeako errepresinoak erabilteko prest egozan.

Liburuak, ordea, galtzaileen perspektibea hartzean dau, gizarte tribalarri lotuta dagoanena. Honeentzat independentziaren sasoi kolonialismoarena bezain zoritarrekoa da, euren biziteko modua ito egin daualako. Baina Kouroumak, prozesu honeen kritika egiten dauan arren —iro-niatsua batzuetan, patetikoak besteetan— ez da jausten gizarte tradizionalaren idealizatzailea. Gogor kritiketan ditu ohitura patriarkalak —Salimata-ren abla-

zinoaren atala benetan gogorra da— eta salatu egiten dau tribuaren andrazkoen balioa ugalketarako gaitasunean ipinten dala.

Susmau geinke, beraz, idazlea modernizatzailearen aldekoa zala, bai, baina afrikartasunetik abiatuta. Eta afrikartasun horren aldarria egiteko, liburuak frantsesez idatzi arren, bere prosa malinke-en esakune eta adierazoteko moduakaz bete eban. Hori itzulpenarako oztupoa dan arren, Aiora Jakak maisuki euskeratu dau euskal irakurleak sabanako barbaro hori igarri daian. Eta horregaitik irabazi dau liburu honek itzulpen onenaren Euskadi Saria.

Ekaitz Zabala Iturbe



AHMADOU KOUROUMA  
Independentzien eguzkiak  
Aiora Jaka Irizar

**Ahmadou Kourouma. Itzulpena: Aiora Jaka Irizar**

**Independentzien eguzkiak**

**Literatura Unibertsala (Erein, Igela), 2023**

**256 orrialde**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112  
**Guardiako farmaziak**  
09:00etatik 22:00etara  
**Zezeilaren 17tik 23ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057  
**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
**Zezeilaren 24tik martiaren 2ra**  
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820  
**22:00etatik 09:00etara**  
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Martiaren 3tik 9ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154  
**22:00etatik 09:00etara**  
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardianik egiten.  
**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**  
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 600 74 63  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 01 85

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Arratiako Udalen Mankomunitatea** 94 631 17 17 / *mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*  
**Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea** 94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*  
**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79  
**IKE** 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*  
**Euskotren** 94 433 33 33 / *euskotren.eus*  
**Areatzako Notariotza** 94 673 92 26  
**Errota Fundazioa** 688 854 543 / *info@erota.eus*  
**Arratiako Musika Eskola** 94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era.  
**3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.  
**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.  
**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.  
**3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.  
**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.  
**3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Ubideatik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.  
**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.  
**3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.  
**3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao**  
**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20. \*Basauriraino bakarrik.  
**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20. \*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.  
**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.  
**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.  
**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.  
**Ugaotik Igorrerara.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.  
**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.  
**Arrigorriatik Zeberiora.** Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik. Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.  
**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik. Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukaren eta diseinu grafikoaren egile- eskubideak Zertu Kultur Elkarteanak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egileztaz aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.

CC BY SA

Lege kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Arantzazu Areatza Artea Bedia Dima Igorre Lemoa Ubide Zeanuri Zeberio

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kekek, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXII). Kale berbakunea sustatu guran

#### ARTEAKO KOKOMARROAK

- Aupa hi! Nora **hoa** holan jantzita?
- Ardi narruagaz eta arranakaz **eztok**?
- Bai ba! Iturenara **hoala** esan **leitikok**!
- Ba hain urrun joan barik, Arratian be **bayekuzek** gure altxorrek!
- Ezeik** esan!
- Artean kokomarroak egiten **jauriezak**.
- Eta zer **dok** hori?
- Ba, antxinako kontu bat.
- Aratosteak ospatuteko?
- Bai jauna.
- Kokomarrok ze esan gure **yok**?
- Kokoa **bicho** eta marro mamarroa.
- A, mozorro eta zomorron antzera?
- Bai jauna!
- Benga **hartik** ardi narru bat eta etorri **hai** nigaz!

## ERETXIA

### Artisautzeari oztopoak

**A**rtisautzearen mundua zeharo irainduta dago gure baitatik, erakundeetaraino.

Merkaduak gero eta beteago dagoz pieza industrialen muntaiez, birsaltzaileez eta eskulanez (gitxietsi barik, euren espazioa be merezidu dabe, baina ez artisautza izenagaz). Ofizioa galdu da, sorkuntzaz eta gure lanaren gaitasun artistikoez gozatutako gogoia. Identitatea be galdu da; kostata antzeman daiteke zein tailerretakoa dan pieza bat, tailer askok pieza bardinak egiten dituelako, dala industriak aurrefabrikatutako zeozer erreproduzidutako aukerea eskaintzen deuselako, dala Youtubeko tutorialek egin beharreko produktua definiduten dabelako. Azoketako mahaiek, normalean, "salduteko" piezak baino ez ditue. Tailer gitxiak sortzean eta erakusten ditue euren lanik zoroenak eta dibertigarrienak, baina kostu handiagokoak.

Artisau familiatik natorrenez, txikitatik egon naz azoken eta artisautzearen munduari lotuta. Lehen gozamina zan azoka batzuk bisitetea; oin lan interesgarri bat aurkitzea kosta egiten da.

Aldundiaren artisautza erregistroak, era berean, artisauak ez diran enpresa mota guztiak biltzean ditu eta ez jagokonari diru publikoa banatzen deutso. Ehungintzako industriak, ezkutuko birsaltzaileak, eskulanak... Aldunditik gure tailerak bisitetan ditue, baina artisautzeari buruz dituen kontzeptuak eta horren inguruan daukien ezagutza oso mugatua danez, ia edozein eskaera sartzean da.

Merkaduak antolatzen dituen udalek eta alkarteek (salbuespenak albuespen) betebeharriskalei jagokienez behar bezala egotea eskatzen deuskue; baina gitxitan eskatzen deuskue gure lanaren argazkiak, edo arretaz behatu gure sormen-gaitasunak. Ez da baloretan, ezta be, hau izatea artisauaren ogibide nagusia.

Hori dala-ta, publikoak jada ez



### ILIA MITXELENA

Bitxigilea

daki artisautzea eta gainerako guztia bereizten. Eta ez deutset errurik egotzen, barrutik txarto egiten gabizalako eta ez dogulako gure lana balioan ipintea errazten.

Industriak be "artisau" berbea erabilten dau iruzur eginez bere produktuei balioa eransoteko. Adibide grafiko gisa, Lays markako artisau-patatak; eta beste hainbeste... Bien bitartean, "artisautza" berbea artisau munduari lotuta dagoanean, gero eta irainduago dago. Azoketan, gure artean, tailerrez be ez da berbea egiten (arkaiko batzuek bakarrik erabilten dogu oindino berbea hori); markaz hitz egiten da.

Modu berean, uste dot garrantzitsua dala aitatzea eskuz egindako guztia ez dala artisautza. Artisautzeak beragaz dakar materia jakin bat xehetasunez eta barru-barrutik ezetutea, arte edo ondare sorkuntza eta artisau beraren errastua. Eta idea eder eta kreatibo bat, ordenagailuz eginda badago, ez da artisautzea.

Amaitzeko, Eduardo Galeanoren *Ventana sobre la memoria* ipuin ederra gehitu gura deusuet:

"Beste itsaso baten ertzean, beste buztinlari bat erretiratzen da bere urte berantiarretan.

Begiak lausotzen zaizkio, eskuak dardarka ditu, agur esateko ordua iritsi da. Orduan gertatzen da iniaziozko zeremonia: buztinlari zaharrak bere piezarik onena eskaintzen dio buztinlari gazteari. Horrela agintzen du tradizioak, Amerikako ipar-mendebaldeko indioen artean: joaten den artistak bere maisulana ematen dio hasten den artistari.

Eta buztinlari gazteak ez du ontzi perfektu hori gordetzen begiratu eta miresteko, baizik eta lurraren kontra apurtu, mila puskatan puskatu, puskak bildu eta bere buztinean sartzen ditu".





## LUMATUTEN



**MAITE ARTABE  
URKIRI**

### Iges betea

**E**z ginduezan hezi askatasunerako. Zaintzarako, lanerako, garbiketarako eta batez be atseginerako hezi ginduezan. Besteen, batez be gizonen atseginerako. Ez egoan atsegina izatea baino balore funtsezkoagorik. Eta horri uko egitearen zigorra bakardadea zan. Atsegina izan ezik, bakarrik. Abandonauta izatea zan mehatxu zitala, bikoterik bako andra distopiaren ikur.

Baina zalantza egin genduan behin edo behin. Alkarregaz egin be. Eta igesean hasi ginan. Iges barneratuta geunkazan balore eta jokabideetatik. Bikote barik, bakarrik eta abandonaturik egotea ez dirala gauza bera jakin genduan eta hurreratu ginan jakitera zein dan geure-geurea zan barne-mundua eta geure utopia. Eta lagundu geuntsan alkarrerik askatasunerako bidean, horixe da-ta nire eretxian maitasun keinurik handi eta politikoena.

Halan, bakarrik eta bakarrik izateari bildurra galduta, ez gara eta ume gorri, heldu eta persona oso baino, edonora joateko baimena emon geuntsan geure buruari eta halaxe deskubridu genduan: iges betea bada posible, hortxe dago bakea, eta ez dago etxe ertzeko lore-dian, poetak susmau legez; neure utopiatik hur dagoan nonora bakarrik egindako bidaian datza iges bete errealak.

## ZERTZEAN



**SAIOA LARREA**



ago


## BEGI TXINDORRA

**Z**ahartzaroa imajinetan dogunean, inoz ez dogu imajinetan zahartzaroen lanera joaten. Fitxatzen. Izan be, oximorona dirudi. Baina androk ondo dakigu —edo jakin beharko geunke— eskubideak ez dirala inoz betiko lortzean, etenbarik konkistau behar dirala. Jubilazinoa epe ertainean galdu daiteken horreetako bat da.

Epe ertainean dinot, isilean, apurka-apurka baina etenbarik urruntzen doalako. Batzuei tokau jaku aldaketea dan inoren lur horretan egotea, eta jubiletako edadera hurreratu ahala, ha, zerumuga balitz lez, urruntzen ikustea.

Bitartean, laneko araudiari kasurik egin barik, biologiak edadea akordau arazo eta erritmoa bajatuteko exijiduten deusku. Kapitalismo neoliberalak barriz, ukatu egiten dau hau, lotsa barik gaur egungo 65 urteak ez dirala lehengoak argudiatuz, eta derrigorrezko jubilazinoa edadismoa dala esanez.

Eta hor gabiz: antiojuak, audifonoa, hortzordea eta tokillatxoia soinean, dortoken erritmoan erbien munduan, zerumuga amets.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**BEER & EDARIAK**

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

**agoa**  
hagin klinikak

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
ikolagata Zerbaita 900  
R.P.S. 21/06



ARRATIA

## Enpresentzako Energia Aurrezkiaren Egiztagiriaren gaineko jardunaldia antolatu dau Errotak

### Erredakzioa

Energia Aurrezkiaren Egiztagiriaren (EAE) sistema Arratiako enpresetara hurreratzeko asmoagaz, Errota Fundazioak Enpresa Foroa antolatu dau zezeilaren 18rako.

Margube aholularitzeak, Energia Euskal Erakunde (EEE) Iñigo Sagastik eta Dosfer enpresako kide batek emongo dabez formakuntzak.

Jardunaldia, goizeko 10:00etan hasiko da, Errota Fundazioak enpresei harrerea eta ondo etorria eginez Zulaibar Lanbide Ikastegiko instalakuntzetan. Ostean, 10:10ean, Margube aholkularitzako ordezkariak, EAE sistemearen sarrerea ze-

lan egin eta sistemearen gaineko azalpenak emongo ditu. Ostean, EEEko Iñigo Sagastiren txandea izango da; honek agente autonomikoaren papera hartuko dau berbagai. 11:10ean, kasu praktiko baten barri eukiko dabe hurre-ratutako enpresetakoek, Dosfer enpresakoak emongo dau lekukotasuna. Hizlariak publikoaren zalantzak argitutakoan, mokautxo batez emongo deusie amaierera jardunaldiari.

### Biherko Errota

Errota Fundazioak abiatu dau bere Plan Estrategiko barria garatzeko prozesua, Biherko Errota izenpean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Mastodon kontua be badauka BEGITUK

Urtailaren 24tik, *begitu.eus*-ek Mastodon sare sozialean be badauka kontu propioa, *@begitu* izenpean. X, Facebook eta Instagram kontuetan legez, *begitu.eus* webgunean argitaratuten diran albiste eta bideoak dagoz ikusgai daborduko Mastodonen.

### Erredakzioa

Kontua, TOKIKOM komunidadeagaz batera sortu dau BEGITUK, Euskal Herriko toki komunikabideek osotuten daben *online* komunidadeagaz hain zuzen be.

Mastodonen kontua sortzeako errazioa, sare sozialen inguruan TOKIKOMek hartu dauan bide estrategiko barriagaz dago lotuta.

Izan be, "gure edukia, gure erara" zabalduko hautua hartu dau TOKIKOMek eta honek, talka egiten dau ohiko sare sozialen jaubeen interes pribaduakaz. X, Facebook eta Instagram, jaubetza eta software pribaduko sareak dira, Elon Musk eta Mark Zuckerberg moduko aberatsen ildo editoriala jarraituten dabelarik, euren interes pribaduen mesedetan. Mastodon

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Mirene Begiristain eta Amaia Perez Orozco Lasarte Aretoan egongo dira ekofeminismoaz berba egiteko

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak Euskal Herria ez dago salgai lelopean, zuhaitz landaketea, dokumental emonaldia eta ekofeminismoaren gaineko berbaldia antolatu ditu zezeilean.

### Erredakzioa

Zezeilaren 28an, 19:00etan egongo dira Igorreko Lasarte Aretoan, Mirene Begiristain Zubillaga eta Amaia Perez Orozco. Ekonomialari eta ekofeminismoaren aktibista ezagun bi honeek *Ama-lurraren defentsan* ekofeminismoaren gaineko berbaldia egingo dabe, desazkundera, agroekologia, ekonomia zirkularra eta elikadura burujaubetza moduko gaiak landuz. "Erdigunean lurraldea ipinten dogu eta egingo dogu berba ekofeminismoaren esanguraz, Euskal Herrian gaur gaurkoz ze eztabaida daukaguzan, eta ze ikuspegigaz gabizan lanean, modu orokor baten behintzat" azaldu deutso BEGITURI Begiristainek.

Perez Orozco batez be, desazkunderaren ikuspegitik egingo dau berba; hau da ekofeminista uritar batek zelan ikusten dauan ekofeminismoa, eta Begiristain ikuspegia, agroekologia, landa-eremua eta ekofeminismoa lur-raren defentsako mobimentuek mahai gainean ipinten dabizan alternatibatik begirakoa.

### Zugatz landaketea eta dokumentala

Aurretik beste ekintza bi programatu ditu taldeak. Hilaren 22an,

Igorreko Urbieta futbol zelaiaren inguruko erreka ertzean, bertako zugatzak landatuko ditue: astigar arrunta (*acer campestre*), gurbiza (*arbutus unedo*), urretxa (*corylus avellana*), basaerramua (*euonymus europaeus*), gartzu hostozabala (*phillyrea latifolia*), basake-reizondoa (*prunus avium*), artea (*quercus ilex*), haretxa (*quercus robur*), artelatxa (*quercus suber*), hagina, (*taxus baccata*) eta akamailua, (*viburnum opulus*). Guztira hogeta hamar landare. Hitzordua 10:00etan da Urbieta parkean eta antolatzaileek partaideei eskatzen deutsee eskularruak eta atxurra eroatea.

Hilaren 26an, 18:00etan, *Vidas*

*irrenovables* dokumentala ikusteko aukera egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Francisco José Vaquero Robustilloren dokumentalak Espainiako transizino ekologiko edo energetikoa, benetan ekologikoa ete dan hausnartzera konbidatzen gaitu. "Erregai fosiletan oinarritutako energia iturriak energia iturri barritagarriakaz ordezkatzeko urgentziak, ekosistema ugari dabil suntsitzen Iberiar peninsulan, baita landa-ingurune horreetan bizi diran personeren bizitzak be. Planifikazino falteak eta administrazioen kudeaketa txarrak arriskuan ipinten dau landa eremuetako personeren bizimodua eta ingurumena" sinopsiaren arabera.



eskualdeko albisteak jarraitutea. Horren frogeta dira atzenaldian jasotako bisita datuak. Berbarako, 2024an, *begitu.eus* webguneak 113.000 bisita jaso ebazan. Sare sozialean be, harrera ona izan dau hurbileko eta euskerazko informazioak Arratia, Ubide eta Zeberion. Batez be, Facebook eta Instagramen jarraitzen dau jen-

teak BEGITU. Holan, Facebooken 2.616 lagun ditu, asko da hau, eskualdeko biztanleriaren ia %17a dala kontuan hartuta. Instagramen barriz, 1.550 jarraitzaile daukaz, biztanleriaren %10a. X-en eta sortu barri dan Mastodon kontuan ostera, leunagoa da inpaktua, 415 eta 41 jarraitzaile hurrengoz hurrengo.



barriz, software libreko sarea da eta algoritmorik erabilten ez dauanez, ildo editorial bakoa da, erabiltzaileak izanik atzen bezeroak.

### BEGITU sare sozialean

2021eko garagarriean hasi eban BEGITUK bere ibilbide digitala eta orduetik, eguneroko kontua bihurtu da arratiar, ubideztar eta zeberioztarrentzako egunean-egunean


## IGORRE

## Liburu aurkezpena eta berbaldia Igorreko Axular Herriko Tabernan

### Erredakzioa

Hilaren 20an, 18:30ean, Leire Vargasen *Bihotz-museo bat* (Elkar, 2024) poema liburuaren aurkezpena eta 25ean, Sahararen egoerearen inguruko berbaldia egongo dira Igorreko Axular Herriko Tabernan. Ekintza bi honetarako dabe Axular Kultur Elkarteak zezeilerako prestatu dauan programazioa.

Leire Vargasek 2021ean Irun Hiria poesia saria irabazi eban *Dena ametsa den irudipena* poema bildumeagaz. Bere bigarren poema liburuaren, *Bihotz-museo bat* izenekoaren aurkezpena egingo da Igorren. "Bizi-gogoa eta esperientzia barrien kilika presente dagoz poemotan, baina baita harremanetan suertatzen diran urruntzeak eta zauriak be, errazoiaren eta emozioen arte-



Leire Vargas.

ko talka eta oreka joko neurritsu baten" dino liburuaren sinopsiak.

Atzenik, zezeilaren 25ean, 18:30ean, Amal Arratiako Sahararien alkarteko Hamada Hatab kideak emongo dau momentu honetako Sahararen egoerearen barri Herriko Tabernako berbaldian.

## ARRATIA

## Beste hilketara matxista bat salatuteko batu ziran arratiarrak Igorren

### Erredakzioa

Zezeilaren 5ean, gizon batek andra bat hil eban Irunen. Ertzaintzak semea atxilotu eban ama labankadaz hiltea leporatuta. 2025eko Euskal Herrian gertatutako bigarren hilketara matxista izan da eta Emakumeen Mundu Martxak eta Arratiako Mugimendu Feministak deituta elkarretaratzea egin eban Igorren hilketara salatu eta hildakoaren hurrekoei alkartasuna adierazoteko.

Arratiako Mugimendu Feministak egiturazko arazoa dan matxismoagaz amaituteko neurri eraginkorrak eskatu ebazan beste behin. "Berba barik gelditzen gara, ezin dogu ulertu. Gizonek andrak hiltea egiturazko arazo dogu, menpeko gura gaitue, obediencia zor deutsegulakoan. Egiturazko arazoa dala dinogu urteetan, justizian eta politikan zabilzuenoi esaten deutsegu: zeozer txarto egiten

da, honek ezin dau jarraitu" adierazoteko. "Horregaitik exijiduten doguz politika feminista eraginkorrak, justizia eta lege feministak".

### Urteko bigarrena, 2003tik 127 andra erailda

Mirentxu Agirre Blasco 2025ean

Euskal Herrian matxismoak hildako bigarren andrea izan da. Barakaldon izan zan urteko lehen eta orduan be semea atxilotu eban ama hiltea leporatuta. Euskal Herrian, gizonek, 127 andra hil ditue 2003tik hona, eta estaduan 1.562 gitxienez.



## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Mozorro eta disfrazak, kalejirak eta desfileak ez dira faltauko Aratusteetan

### Erredakzioa

Zezeilaren 28tik martiaren 4ra arte dira aurten Aratuste, Inauteri edo Karnabalak. Herri guztietan ospatuko ditue neguko jai honetarako, baina modu desbardinetan; izan be, leku batzuetan, antxinako moztorroak berreskuratu dabez (Arteako Kokomarroak, Dimako Txuxoak...) eta beste batzuetan, disfraz koloretsuak jantziko ditue. Herriaren arabera be aldatuko da ospatzeko eguna; holan, herri batzuetan zapatuan, martiak 1, eta beste batzuetan martitzen karnabalean, martiak 4 izango dira jarduerak.

Umeen jaiak batez be barikuan izango dira, hilak 28. Izan be, eskoletan disfrazak egiten ditue eta herrietik desfileak antolatuten ditue. Udalek be, egun hori aukeratu dabe umeentzako Aratuste jaiak egiteko.

Nagusiek oster, herriaren arabera, edo zapatuan, aurten martiak 1 edo martitzen karnabalean izaten dabe egun handia. Igorren, zapatuan egiten da, egun osoko jai antolatuteko; Bedian barriz, martitzen karnabal ospatuteko tradizioari eusten deusie.

Aurten, Bediaz gainera, Arantzazun eta Artean be martitzen kar-

nabal ospatuko da.

BEGITU zarratuterakoan, egitarau batzuk osotu barik egozan eta hona dakurgazanak baino ekintza gehiago egongo dira jai giro ederrean ospatuteko karnabalak.

### Arantzazu

#### Zezeilak 28, barikua

21:30ean, bariku rockeroak eta moztorro gaua. Jardin inferno taldeagaz Herriko Tabernan.

#### Martiak 4, martitzena

18:30ean, Tostada eta Mozorro Lehiaketak Herriko Tabernan.

### Areatza

#### Martiak 1, zapatua

Lamino Eguna. 09:30ean, mendi urtekerea eleizako portikutik urtenda, hamaiketako eta saldea egongo dira; 13:00etan, moztorro desfilea Gudarien Plazatik Hotelera Mariachi Azteca de Flor Fernandezek alaituta; 15:00etan, baba-jana Areatzako Bainuetxean; 17:30ean, Primo Bayo disko festa.

### Artea

#### Zezeilak 28, barikua

Aratusteak. 16:00etan, jaialdia. Eskolako ikuskizuna, txokolatea eta musikea plazan; 19:00etan, kalejirearen eskolako guraso alkarteak eta Kokomarroak-ek antolatuta.

21:30ean, Intxixuren kontzertua Herriko Bentan.

#### Martiak 4, martitzena

18:00etan, *Alpistegia* ikuskizuna, umeentzako bertso antzerkia Kultur Etxean.

### Bedia

#### Zezeilak 28, barikua

Iñauteri Txiki. 18:00etan, desfilea, ludotekatik plazara, ludotekako umeakaz; 18:15etik 19:15era, *Ipuinak puzten* ipuin kontaketea, Elsie Xalbador eta Keko Salvadoreren eskutik.

#### Martiak 4, martitzena

17:30ean Inauteri jai frontoian. 17:30ean, sarrera, *photocall*-a eta desfilerako izen-emotea; 18:00etan, desfilea herri mailan; 18:30ean, Gaur jai umeen jantzaldia; 19:30ean, txokolatea.

### Dima

#### Zezeilak 27, eguna

18:00etan, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldearen *Momotoxorroak* dokumentala eta berbaldia eskolako kamaran.

#### Zezeilak 28, barikua

18:00etan, Bariku txiki. Bihar taldearen *Harritzeko ipuinak: Tartalo eta sorgina* Abaroan.

#### Martiak 1, zapatua

Egun osoko jai. Txuxoak: alkateak

aginte makilea emon, musikea herrietik, bazkaria, bingoa, Txuxoa erretea...

### Igorre

#### Zezeilak 28, barikua

16:30etik 17:45era, lehengo disko festa Esna gazte-gaz, gero txokolatea. Guraso alkarteak antolatuta.

#### Martiak 1, zapatua

Inauteriak. 12:30ean, kalejirearen herri zehar, Garbetik hasita; 15:00etan, herri bazkaria eskolako aterpean; 17:00etatik 20:00etara, erromeria Beranduegi taldeagaz. Bitartean, sari banaketea. Bazkarirako txartelak hilaren 26ra arte salgai Hegazkiña eta Gau Loran. Nagusiek 20 euro, umeek 15.

### Lemoa

#### Martiak 1, zapatua

17:00etatik 20:00etara, Haurrentzako Inauteri Festa kiroldegian: txiki txoka, makillaje gunea, jolasak, *photocall*-a, txokolatea, taile-

rrak, diskofesta... kiroldegian.

19:30ean, poteo musikatua Berakatz musika taldeagaz Jubiladuenetatik hasita.

### Ubide

#### Martiak 1, zapatua

Inauteriak. 17:00etan, kalejirearen plazan hasita; 18:00etan, desfilea plazan, ostean sari banaketea; 20:00etan, parrilladea eta musikea. Mozorroaren gaia: gorria.

### Zeanuri

#### Zezeilak 28, barikua

Inauteri festa. 17:00etan, altxorraren bila; 18:30ean, moztorro desfilea; 19:00etan, txokolate ogitartekoa danontzat. Plazan.

### Zeberio

#### Zezeilak 28, barikua

Inauteri jai. 18:00etan, txokolatea; 18:30ean, desfilea eta 19:30ean, DJ-a. Plazan.





IGORRE

## Kiñu Gaztetxea hutsitzearen kontrako manifestazinoa deitu dabe hilaren 21erako

Aprilaren 23an izango da epaiketea eta orduan Kiñu Gaztetxea "hutsiarazoko dala ebatziko da" Gaztetxearen arabera. Hori dala-ta, manifestazinoa deitu dabe Igorren, zezeilaren 21ean. Kultur Etxetik, 19:00etan urtengo da manifestazinoa.

### Erredakzinoa

Gaztetxeak, herritarrek gune autogestionauak defendiduteko deia egin dabe. "Argi itxi gura dogu ez garala belaniko geldituko, eraso honek ez dirala erantzun barik geldituko. Gune okupau eta autogestionauen kontrako erasoak handituen diran moduan, gu be bagabiz saretuten eta gure amorrua zein alkartasuna antolatuten. Herrien antolakuntza alternatiborako beharrezkoak dira holango espazioak eta ez doguz galtzean itxiko" dinoe zabaldu daben komunikaduan.

Aprilean, epaiketea izateaz gainera, Gaztetxearen hamaikagarren urteurrena be izango da eta ekintzak egongo dira urteurren jaia, eta hutsitzearen kontrako burruka buztartuko dabenak.

### Bost urte burrukan

2020ko garagarrilean jakin eben Igorreko Kiñu Gaztetxeo asanbladakideek Sabadell Banketxeak eta honen menpeko etxe-agentziak, Solviak, gazteak eraikinetik kanporatzeko prozesua hasi ebela. Orduan, asanbladakideak Bilboko Okupazio Bulegoagaz ipini ziran lanean eta bankukoakaz negozia-

zinoetan hasi ziran. Baina negoziazinoak amaitu barik, 2022ko aprilaren 27an, Durangoko epaitegian epaiketa ipini eutseen. Ha-ta guzti be, Sabadelleko abogaduak ez ziran epaiketara aurkeztu eta errekursoetarako epea amaituta, garapena aldarrikatu eben asanbladakideek. Behin-behineko garapena izan zan eta 2025eko aprilaren 23an epaiketarako deituta dagoz barriro.

Burruka hori kultura jarduerakaz buztartu dabe ia bost urte honeetan "gure egunerokotasuneko ekintza eta burrukez aparte, negoziazino ugari, kanpaina edota epaiketa bat be eroan doguz aurrrera" dinoe komunikaduan.

### Hamaika urteko lana

Kiñu Gaztetxearen hamaika urteko ibilbidean, asko izan dira bertan antolatu diran kultura jarduerak eta ekintzak. Arratiako talde eta eragileentzat topaleku be bada Gaztetxea. "Arratiako eragile eta alkarte askorentzako aterpe izan da asanbladea, gordeleku edota ekintzak egin ahal izateko. Eta hola izatea behar dogu, ezin dogu atzenengoz burrukan egin barik gaztetxea galtzean itxi. Amaierara arte dana emongo dogu".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Gorbeia Parke Naturala, National Geographic-en Sarietan Helmuga Natural Onena izateko sailkatu da

Gorbeia Parke Naturala, finalista hautatu dabe National Geographic Bidaia-Irakurleen Sarietan hirugarren edizinoan, Espainiako Helmuga Natural Onenaren kategorian eta zezeilaren 21era arte emon daiteke botoa saritua izan daiten.



### Erredakzinoa

Sariak, munduko helmugarik onenak, hotelak, proiektuak eta airezbitzuak aitortzen ditu. Gorbeia lehian dago Val d'Aran, Teideko Parke Nazionala, Guadarramako Parke Nazionala eta Tajo Garaiko Parke Naturala lango helmugakaz.

"Gorbeia euskal mendizaletasunaren erreferente izateaz gainera, jasangarritasunaren adibide be bada. Natura 2000 Sareko Natura Turismoaren Iraunkortasuna Aitortzeko Sistemak ziurtatutako helmuga ekoturista danez, bere baliabideen kudeaketa jasangarriko estandarrek beteten ditu" dinoe Gorbeia

Helmuga Turistikotik. "Mendi ibilaldiek, zikloturismoak, espeleologiak eta zaldiz egiten diran ibilbideek natura eta turismo aktiboa maite debenezako leku ezin hobea bihurtzen dabe Gorbeia. Gainera, Goiuriko ur-jauziak, 100 metrotik gorako altuerak daukanak, eta ltxinako Biotopo Babestuak, paisaia balio aparta daukie".

Hamasei kategorietako irabazleak datorren aprilaren 22an iragarriko dira, National Geographicen aldizkariaren maiatzeko edizinoan eta webgunean.

**Botoa emoteko jarraibideak**  
Helmuga Natural Onenaren Sa-

rirako Gorbeia Parke Naturalari botoa emoteko, pausu honek egin behar dira:

1. [https://viajes.nationalgeographic.com/es/promociones/elige-ganadores-iii-premios-lectores-viajes-national-geographic\\_21703](https://viajes.nationalgeographic.com/es/promociones/elige-ganadores-iii-premios-lectores-viajes-national-geographic_21703) webgunean sartu.

2. Osotu prozesua kategorian guztietan botoa emonez. Hautatu "P.N. Gorbeia" "Mejor Destino Natural" kategorian.

3. Bete balidazio formularioa, onartu baldintzak eta bialdu zure botoa.

Bozketan parte hartzean daben guztiak Samsonite 10 maleten zozketan sartuko dira.

LEMOA

## Lemoako eraikin eta lokaletako garbitzaileek hitzarmena sinatu dabe

### Erredakzinoa

ELA sindikatuak akordioa lortu dau Lemoako Udalak azpikontratauta daukan Impacto enpre-seagaz. Hitzarmen barriak hiru urteko indarraldia eukiko dau (2024-2026) eta epe horretarako %18ko soldata igoera jasoten dau; 2025ean %12koa

eta 2026an, %6koa. Soldata horrek jarraipena emoten deutso 2023ko greba amaierako akordioan lortutako %12ko igoerari.

ELAK jakitera emondakoaren arabera, akordioak beste hobekuntza batzuk be jasoten ditu; tartean, norbere arazoetarako ordaindutako egun biko lizentzia. Enpresek lan-boltsa bat sortuko

dau antxinasunaren araberrako ordenagaz eta horren ondorioz enpresek lanpostu barriak eskaini beharko deutsez lanaldi partziala edo aldi baterako kontratuak daukiezan personei.

ELAK aldarrikatu dau akordio hori plantillearen antolaketeari eta burruka sindikalari esker lortu dala.



## AGATE DEUNA

# Agate Deunaren koplak Arratia, Ubide eta Zeberrioko bazter guztietan

Badakigu jakin, Agate Deunaren bezperako tradizioa ondo errotuta dagoala BEGITUREN eremuan eta ibiltzen dirala auzotarrak eske errondan koplak kantetan; badakigu koplak errepertorio aberatsa daukagula ahanzturan jausi ez dana; badakigu Arratiako Korua oso ezaguna dala Arratiatik kanpo be... baina oin arte BEGITUN ez dogu horren testigantza grafikorik jaso: beti argazki edo bideo solteren batzuk, baina inoz ez herri guztietakoak. Horregaitik, oingoan, herro gehienetako argazki aukeraketa bat dakargu orrialdeotara, handia izan ez arren, benetan be, Santa Ageda bezperako tradizioa ondo errotuta dagoala erakusten dauana.



Arratiako Korua Lmeoan.



Asterriakoak.



Arratiako Korua.



Undurragakoak.





Arratiako Korua Areatzan. Argazkia: Jose Atxa.



Undurraga.



Bedia.



Artea.



Arratiako Korua Bilboko udaletxean.





Arratiako Korua Areatzan. Argazkia: Jose Atxa.



Arantzazu.



Arratiako Korua Lemoan.



Dima. Argazkia: Dimako eskolea.



Artea.



Undurraga. Argazkia: Miren Idigoras.

## Arantzazuko inauteriak 2025

**Otsailak 28, barikua**

21:30ean, Jardin inferno taldearen musika saioa. Bariku rockeroak eta mozorro gaua Herriko Tabernan.

**Martxoak 4, martitzena**

18:30ean, Tostada eta Mozorro Lehiaketa Herriko Tabernan.

ARANTZAZUKO UDALA  
ETA JAI BATZORDEA







Igorre.



Zeberio. Argazkia: Zeberioeko eskolea.



Zeberio. Argazkia: Zeberioeko eskolea.



Igorre.

mar  
txe  
ak  
1

# UBIDEKO INAUTERIAK

17:00 Kalejira plazan hasita:  
zure etxean batuko zaitugu!

18:00 Desfilea plazan  
ostean, mozorro onenaren Saria

20:00 Parrillada eta musika

**GAIA: GORRIA**  
Suhiltzale, marigorringo, Sandia,  
deabru... ofagin buruati!

**DIMEKO**

**HERRI ARATUSTEAK**

**MARTIEK 1ean**

**TXUXOAK**





**Hotel Balneario**

Areatza



**ETORRI ETA ERLAJAU ZAITEZ  
AREATZA BAINUETXEAN**

**ZIRKUITU  
TERMALAK**

**MASAJEAK**

**BIKOTE-KAPRITXOAK**

**ERRITUAL NATURALAK**

**HIDROTERAPIA**

**ESTETIKA & KOSMETIKA**

**EGONALDIAK**

**HOTELEAN**

[hotelbalnearioareatza.com](http://hotelbalnearioareatza.com)

946572705

[info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com)





- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**



**ekin@ekinsl.eus**



**Igorre (Bizkaia)**



## MENDIA



## Gorbeia Suzien Skyrace lasterketarako izen-emotea martiaren 3an zabalduko da

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 27an Zeanurin jokatu da Gorbeia Suzien mendi lasterketa. Modalidade bi izango ditu; bata Skyrace 32 km eta 2.400 metro desnibelduna eta bestea 21K, 21 kilometro eta 1.200 metro desnibelduna.

Gorbeia Suzien Skyracen izena emoteko epea martiaren 3tik 23ra izango da [www.grobeiasuzien.eus](http://www.grobeiasuzien.eus) webgunean. Dorsalen zozketea martiaren 28an izango da.

21 kilometroko lasterketan parte hartzeako barriz, apirilaren 1ean, 10:00etan zabalduko da izen-emotea, dorsalak amaitu arte.

## FUTBOLA

## Bolada txarrean dagoz gizonzkoen eta andrazkoen Arratia A taldeak



Arratia A eta Alaves B taldeen arteko partidua. Joana San Andres atezaina, Maddi Aiarza, Itsaso Kumi, Nerea Izagirre eta Lucia Pascual.

### Erredakzioa

Gizonzkoen eta andrazkoen Arratia Bk baino ez eben irabazi hilaren 15 eta 16ko astegienean jokatu-tako partiduetan. Gizonzkoen eta andrazkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik galdu egin eben.

Gizonzkoen Arratia A taldeak hilaren 15eko arrastian jokatu eban Urbietan Sestao River B taldearen kontra eta 1-2 galdu eban. Kanpokoak lehen minutuan aurreratu ziran markagailuan eta lehen zatiko 33. minutuan bardindu eban Arratia Ak. Bigarren zatiko 84. minutuan ostera sestaotarrek bat eta bikoia sartu eben. Arratiarrak ez dabiz fin, aurten jokatu-tako zazpi partiduetan 3 puntu baino ez ditue lortu eta ez dabe partidurik irabazi oindino. 21 jardunaldiren ostean 31 puntu ditu Arratiak eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Lekeitio A taldearen kontra hilaren 22-23ko astegienean.

Gizonzkoen Arratia B taldeak hilaren 15eko arrastian jokatu eban etxetik kanpo San Miguel A taldearen kontra eta 0-2 irabazi eban. Lehen zatian sartu eban Arratiako taldeak gol biak; bata 23. minutuan eta lehen zatiko atzen minutuan. Aurreko partidua galdu egin eban etxean. 21 jardunaldiren ostean 27 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Arratia Bk La Merced A taldearen kontra hilaren 22an, arrastiko 17:00etan.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 15eko arrastian jokatu eban Alaves B taldearen kontra eta 0-2 galdu eban. Gol biak bigarren zatian sartu ebezan arabarrek. Garrantzia handiko partidua zan eta Arratia taldeak zaleak animau zituan partidura, sarrea doban ipini eban klubak eta jente ugari batu zan Urbietan. Partidu hasieran bolanderak bota ebezan eta hainbat suziri isiotu. Baja garrantzitsu bi daukaz Arratiak atzekaldean eta atzen hiru partiduetan, eurretako bi

lehen postuetan dagozaren kontra, puntu bakarra lortu dau; holan 20 jardunaldiren ostean 37 puntu ditu Arratiak eta bosgarren postuan dago, igoteko postuak edo promozinokoak gero eta urrunago ditu. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Osasuna C taldearen kontra hilaren 23an, goizeko 11:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 16ko eguerdian jokatu eban Urbietan Bizkerre C taldearen kontra eta 8-2 irabazi eban. Alaitz Zelestino dimoztarrak lau gol sartu eban, Iratxe Bernaola ateztarrak bi eta Uxue Aurtenetxe eta Iزارo Gallastegik bana. 17 jardunaldiren ostean 28 puntu ditu Arratia Bk eta seigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Pauldarrak B taldearen kontra hilaren 22-23ko astegienean.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik hilaren 16ko eguerdian jokatu eban etxetik kanpo La Merced A taldearen kontra eta 2-1 gadu eban. Lemoakoak aurreratu ziran lehen zatian Ander Garciak sartutako golari esker, baina partidua amaieran sartu ebezan gol biak La Merced taldekoek. X sare sozialean egin eban partiduen jarraipena Lemoako Harrobiko kontuak eta "hainbeste parkatu eta gero oin sufritzen" adierazo eban partidua bardinketeagaz joianean. Aurreko partidua irabazi egin eban Arlonagusian. 21 jardunaldiren ostean 22 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamabigarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Loiola Indautxu taldearen kontra hilaren 22-23ko astegienean.



# ARTEAKO ARATUSTEAK



**OTSAILAK 28  
BARIKUA**

"ARATUSTE JAIALDIA"

16:00ETAN  
HERRIKO PLAZAN

**OTSAILAK 28  
BARIKUA**

"KALEJIRA"

19:00ETAN  
KALEZ KALE

**MARTXOAK 4  
MARTITZENA**

"ALPISTEGIA" IKUSKIZUNA ETA  
HAURRENTZAKO BERTSO ANTZERKIA

18:00ETAN  
KULTUR ETXEAN







## KIROLA

# Igorrek jarduera barriak sartu ditu kirol programa inklusiboaren barruan

Igorreko Udalak, GaituzSportegaz lankidetzan, kirol inklusiboaren eskaintza zabaldu dau aretoko jarduera barriakaz. 2023-2024an ipini zan martxan eta daborduko udalerriko 12 personak hartzean dabe parte.

### Erredakzioa

Oin gehitutako jarduerak, mantente gimnasia, jarrera zuzenka eta multikirola dira, "persona gehiagok ingurune irisgarri eta seguru baten kirola egiteko aukera izan dagien".

Momentu honetan, programan 12 persona dagoz: 6 igeriketa egokituko jardueran; 4 hezkuntza laguntzan, hau da, Hezkuntzako igeriketa ikastaroak emoten; eta lagun bi Igorreko udal eskaintzearen jarduera normalizaduetan GaituzSporteko arduradunen jarraipenagaz.

Programa hau abiatzea Igorreko Udalak eta GaituzSportek alkarre gaz egindako lanaren emaitza da. Lan horretan, "udalaren kirol eskaintzearen azterketa eta diagnostiko sakona" egin da. Prozesu ho-

rreratik abiatuta, hobetzeko hainbat arlo identifikatu dira, eta funtsezko gomendio batzuk ezarri dira herriko kirol eskaintza aberasteko.

### Laguntza personalizua

Programa inklusiboak laguntza personalizauko ibilbidea eskaintzen dau, aholkularitza profesionalagaz eta laguntza baliabideakaz; esate baterako, hasikerako orientazioa, aldageletako asistentzia eta talde normalizaduen jarraipena. Gainera, kirol instalazioak egokitu egin dira irisgarritasuna bermatzeko. Baliabide horreez gainera, "Ki-prest" aplikazio bat be sartu da, programa osoan lagunduteko, parte-hartzaileek, familiariek eta jarduerak koordinatu eta profesionalen informazioa eta komunikazioa eskuratu dagien.



## PELOTEA

# Dimako Jailetako Pelota Txapelketarako izen-emotea zabalik dago

### Erredakzioa

Dimako Jai Batzordeak antolatutako hamargarren edizinoia izango da aurtengoa. Izena martiaren 31ra arte emon daiteke 688 653 473 telefonoan.

Aurten Txapelketeak hiru sail ditu, Kristauek, Lamiek eta Jentilek izenekoak. Kristauen mailan edonork emon ahal dau izena, baina federatua ez izatea eta

bikotekide bat gitxienez dimoztarra izatea dira baldintzak. Doban da eta ligaxka motakoa izango da lehia. Lamien txapelketan barriz, andrazkoek emon ahal dabe izena eta hau be, ligaxka moduan jokatuko da. Jentilen txapelketan ostera, izen-emoteak hamar euroko kostua dauka eta bikotean, gehienez federatu bat egon behar da; hau, eliminatoria moduan jokatuko da.

## ERRUGBIA

# Atzen postura arte egin dabe atzera Arratiko Zekorrek taldekoek



Zezeilaren lehen hamabostaldian jokatutako partidu biak galdu ditue: 17-14 Mungia Uribealdearen kontra eta 21-31 La Unicaren kontra.

### Erredakzioa

Euskal Liga Seniorreko 2. maila aurrera doa eta Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek errugbi taldea, garaipena ezetu barik jardunaldi ugari egin ostean, atzena da sailkapenean -bederatzigarren-

11 puntugaz. Halanda be, sei jardunaldi faltau dira oindino eta badaukie aukerea bosgarren postura be igoteko. Izan be, arratiarren gaintetik dagozan lau taldeak zazpi puntura daukiez, gehienez be. Hileon, jardunaldi bi jokatuko dira eta bietan galdu dabe zeko-

rrek. Hurrengo partidua hilaren 22an jokatuko da, San Txismen errioxarren aurka, 16:00etan.

Hilaren 1ean, Mungia Uribealde taldearen kontrako aurrez aurrekoa jokatuko eban etxetik kanpo eta 17-14 amaitu zan partidua. Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak azaldu eban, partidua "nahiko bardinduta" egon zan baina zelaiaren egoan lupetz guztiak, zaildu egiten eban jokoak. Halanda be, zekorrek hur izan eban garaipena 12-14 joanda. Baina 77. minutuan, mungiarrek entsegu bategaz hartu eban aurrea.

Hilaren 8an barriz, San Txismen jokatuko eban arratiarren kontra, 21-31 amaitu zan lehia iruindarren alde. Imanol Iriondo jokalaria adierazo eban, "partidu gogorra" izan zan sailkapeneko hirugarren taldearen kontrako: "Denpora asko egon ginan defendiduten eta eurak tamainu handikoak ziran". Galtzean hasita, 54. minutuan Zumel Iturratek entsegu lortu eta Iñaki Artetxek transformautu, arratiarren aurretik ipini ziran. Halanda be, minutu gitxira nafarrek beste entsegu bi egin eta holan amaitu zan partidua.

## ONEWALL

# Lur Ziarrustak Floridako Hollywood Beach Txapelketea jokatuko eban



### Erredakzioa

Lur Ziarrusta pelotari dimoztarra Ameriketako Estatu Batuetako Floridako Hollywood Beach Onewall Txapelketea jokatuko eban zezeileko lehenengo astegiaren.

Txapelketa bi jokatuko eban eta lehenengo postuetara heldu ez

bazan be, pozik agertu da esperientziagaz. Izan be, Ameriketako dagoan onewall maila oso ona da, Europakoagaz konparatuta. "Han ehunka jokalaria dagoz Europako bost jokalaria onenon mailakoan; taktika hobea daukie eta batez be, bikoteka igarten da maila ona", azaldu dau Ziarrustak. Ziarrusta

lehena da gaur egun ranking europarrean.

Zezeilaren 1ean, Florida vs The World Txapelketea jokatuko eban eta 90 bikote egon ziran lehian. Danak izan ziran amerikarrak, Lur Ziarrustak eta Oier Hormaetxe lezamarrak osotutako bikote euskal herritarra kenduta. Lehenengo partidu biak irabazi eban baina hirugarrena galdu eban.

Hurrengo eguneko txapelketan barriz, bertoko jokalaria onenek baino ez eban parte hartu baina lekua egin eutsien Ziarrustari Tywan Cook-egaz, eta beragaz batera, final-laurdenetara heldu zan dimoztarra.

### Euskal Herriko Irekia apirlean

Apirilaren 5 eta 6an, Rebotean OneWall Klubak antolatutako Euskal Herriko Irekia jokatuko da Durangoko Ezkurdi pelotalekuan. Europako zirkuituaren parte izango da txapelketa hau eta edonork emon ahal dau izena martiaren 14ra arte [www.rulethewall.com](http://www.rulethewall.com) webgunean.



## IKUSKIZUNA

## Manttalingo alaba ikuskizun poetiko-musikala Lemoan izango da hilaren 22an

### Erredakzioa

Mikel Etxaburu poeta ondarrutarrak Saturrarango kartzelan preso egondako andren omezez idatzitako *Manttalingo alaba* liburuan oinarritutako ikuskizun poetiko-musikala ikusteko aukerea egongo da zezeilaren 22an, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Nerea Zuloaga Areatzakoak kantetan ditu berak musikautako poemak, Irina Alvareren bibolina eta Jon Gardoki-  
ren akordeoiagaz lagunduta.

Emonaldi asko egin ditue benetako gertaeretan oinarritutako lan honeguz, Saturraranen aurkeztu zanetik eta urte osorako eta 2026rako emonaldi batzuk be berbatuta daukiez. Guztira, mila personatik gorak ikusita eukien ikuskizuna abenduaren erdikalderako. Saturraranen 1938tik 1944ra, 4.000tik gora andra egon ziran preso; bertan hil ziran 116 andra eta 54 ume. Etxabururen *Manttalingo alaba* poema liburuak, 2023an Ernestina de Champourcin Poesia Saria irabazi eban.



## MIKROIPUIN TXAPELKETEA

## III. Mikroipuin Txapelketako sariak bananduko ditue Igorren hilaren 19an

### Erredakzioa

Arratiako Berbalagunek antolatutako III. Mikroipuin Txapelketako sari banaketako gala, hilaren 19an, 19:00etan izango da Igorreko Lasarte Aretoran. Sari banaketaz aparte, bertsolariak, musika, mikroipuin irakurketak eta poema batzuen irakurketak egongo da.

Guztira 31 lan aurkeztu dira eta sari bi emongo dira: lehenengoa eta bigarrena. Txapelketaren balorazino ona egiten dau Berbalagunek. "Balorazino oso ona da: jente nahikotxok hartu dau parte eta aurreko edizinoan baino arrakastatsua goa izan da" azaldu deusie begituri antolatzaileek. Eta hurrengo txapelketan be parte hartzera animau gura dabe jentea.

## ANTZEZLANA

## Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak *Arizona* taularatuko dabe Igorren

Zezeilaren 22an, 20:00etan, Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak, migrazino eta harresien gaineko Juan Carlos Rubioren *Arizona* antzezlan ekarriko dabe Igorreko Lasarte Aretora.

### Erredakzioa

Kepa Errastik euskeratu dau antzezlan. Testuak mugen, migrazinoaren, giza ergelkeriaren eta manipulazinoaren mugen gaineko gogoetea egiten dau, bizitzaren basamortuan galdutako gizaki biren arimaren erretratu tragikomikoa egiteaz gainera. "Arizona ez dago hain urrun. Arizona hemen dago, Behobian, Melillan, gure uri bakotxean, gizaki batek bizitza hobea lortzea eragozteko altxatzen dan harresi bakotxean".

### Sinopsia

Margareth eta George Arizonako mugaraino heldu dira helburu bigaz. Lehenengoa, musikal bat egitea; bigarrena, misino bat betetera "Proiektua"k hala aginduta: Gu bizilagunengandik banatzen gaituan muga marrazten dan lekuraino joan eta ha

defendidu.

Baina defendidu norengandik? Zelatan, ezkutuan, kurutzatzeko aukera txikiaren zain dagozan horreengandik. Eta zergaitik gura dabe guregana etorri? Galdera larregi Geor-  
gen adimen zurrunarentzat eta erantzun gitxi Margarethen ja-  
kinmin asetu ezinarentzat. Mu-

turreraino eroandako personaia bi dira eta parodia zoroena eta tragedia gordinena banatzen dituan marra/mugaren gainean jolasean ibiliko dira, aktualidadea ia monopolizau arte beteten dauan gai unibersal hau oholztan ipinita, sasitragedia, sasikomedia, sasimusikal forman eskainiz.



## BARIKU TXIKI

## Familiantzako txotxongilo tailerra eta emonaldia antolatu dabe Diman

Bariku txiki ekimenaren barruan, familiantzako txotxongilo tailerra eta emonaldia antolatu dabe zezeila eta martian zehar Dimako Abaroa Aretoran.

### Erredakzioa

Tailerrak lau saio izango ditu eta zezeilaren 19tik martiaren 12ra, eguaztenetan, izango da 17:00etatik 18:30era. Txotxongilo emonaldia barriz, hilaren 28an, barikuan, 18:00etan izango da.

Bihar taldeak gidatuko ditu tailerrak eta eskainiko dau *Harritzeko ipuinak: Tartalo eta sorgina* emonaldia.

Zezeilaren 17a da tailerren parte hartzeako izena emoteko atzen eguna, udaletxean. Umeak helduren bategaz joan behar dira tailerrera eta izena emotean, lau egunetan joateko konpromisoa hartzean da.

Bihar taldea 1972an hasi zan lanean eta 1979an espezializau

zan txotxongiloen munduan. Eskularruzko txotxongiloak, ha-  
gaxkak, marroteak, bunrakuak...  
erabilten ditu istorio dibertigar-  
riak kontetako.

### Ikuskizuna

Eskularru txotxongilo teknika

erabilten da *Harritzeko ipuinak: Tartalo eta sorgina* ikuskizun-  
nean. Istorio honen protagonis-  
tek, gaez sagarrak lapurtzen  
dituan sorginari aurre egin be-  
harko deusie lehenengotik eta  
gero Tartalori, begi bakarreko  
erraldoiari.

#PraktikatuetaBizi

Gonbidatuta zaudete giro ezinhobean gurekin batera mikroipuin saridunak ezagutzera! Bertsoak, sorpresak... Erdu!

Otsailaren 19an, 19:00etan, Lasarte Aretoran

Otsailaren 19an eta 26an

Martxoaren 5ean eta 12an

**TAILERRA**

**ABAROAN 17:00-18:30 (Asteazkenak)**

Otsailaren 28an

**GAUR TALDEAREN Txotxongilo emanaldia**



## JANTZEA

# Jantzzea izango da protagonista Areatzan martia eta aprilean

Aprilean izango dan Danspirenaika, Aikok antolatutako tradiziozko jantzaz gozatuteko bidaia kulturala da, Pirinioen inguruan jantzan ikasteko aukerea emoten dauana.

### Erredakzioa

Akitania barria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdeak kofinantzautako proiektua da eta Areatzako Udalaren babesia dauka. Aprilaren 4, 5 eta 6an izango da Danspirenaika Areatzan eta izen-emotea zabalik dago daborduko.

Osogorri modura, giroa berotzeko eta Danspirenaika Arratiako eskualdean jakitera emoteko, martiko domeka arrastietan, 18:00etan, *Arratiako jotea danontzat* jantza ikastaroa antolatu dau Aikok. Igorren martiaren 9an izango da ikastaroa eskolako aterpean; Diman, 16an

frontoi txikian; Zeanurin, 23an plazako frontoian eta Areatzan martiaren 30ean eskolan. Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuriko Udalen laguntzea dauka ikastaroak. Aikokoak Igorreko Arantzarte, Lemoako Durundi Barri, Zeanuriko Etzanderak, Dimako Gazte Barri eta Arteako Gangozuri jantza taldeakaz ipini dira hartu-emonetan eta euretako batzuen parte-hartzea izango dabe ikastarootan.

### Arratiako jotea danontzat ikastaroa

Arratiako jotea izenagaz, batez be, "talde folklorikoen akademizazioaren aurretik hedatuta



egoan jantzan egiteko modu herrikoi, aberats eta anitza izentatzen da. Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak, eta batez be bertoko jantza maisua izan dan Kepa Artetxeren lanari esker Euskal Herri guztian zabaldu zan Arratiako jota moduan". Jantzakera honen oinarria, egitura eta sistematizazio didaktikoa irakasteko ikastaroa antolatu da Aikoren eskutik, Arratiako lau herritan. "Ez dira lau ikastaro, baizik eta ikastaro bera herri

desbardinetan antolatuta lau egunetan" dinoe antolatzailleek.

Ikastaroa debalde da baina alde aurretik izena emon behar da 634 423 539 whatsapppe Arratiako jotea danontzat ikastaroa ipinita edo [bulegoa@aikotaldea.eus](mailto:bulegoa@aikotaldea.eus) helbidera idatzita. Ikaslearen izen-abizenak, telefono mobikorraren zenbakia eta emaila bialdu behar dira izena emoterakoan. [www.aikotaldea.eus](http://www.aikotaldea.eus) webgunean topau daiteke informazio gehiago.

## IPUINAK

# Maider Alcelayren Ipuin hegalaria entzuteko aukerea Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

### Erredakzioa

Zezeilaren 26an, eguaztena, 18:30ean, Mainer Alcelay ipuin kontalari arrasatearrak *Ipuin hegalaria* munduko ipuinen kontaketea egingo dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Kontakizuna 4 urtetik gorako umeentzat dago gomendatuta.

"Ipuinak ahoz aho doaz, leku batetik bestera. Holan heldu jakuz munduko beste herrialdeetako ipuin, alegi eta kondaira asko. Saio honetan, munduko leku desbardinetan kontetan diran ipuinak entzuteko aukerea egongo da. Honeetan, ohitura, folklore, natura eta hizkuntza desbardinakaz topo egingo dogu pertsonaia bitxi eta dibertigarrien bitartez" dino kontalariak kontaketea aurkeztuteko.

## DUNBA

# San Balendin

Zezeilaren 14a da, maitasun erromantikoa ospatu eta goraiatuteko eguna.

### Ingotu Arratia Institutuko talde feminista

Guk Ingotutik argi itxi gura dogu egun hau kapitalismoak bere maitasun eredu zisheteropatriarkala sustatuteko erabilten dauan heinean eta naturalki inposatua izan dan heinean, guk ospatutekorik ez daukagula eta maitasun erromantikoa deseregi-tearen alde egiten dogula.

Maitasun erromantiko hegemonikoak kalte handia egin deuto andreari, gizonaren menpe, bigarren plano baten eta zaintza rola andrazkoen esku itxiz, jasoteko eskubiderik bermatu barik. Gainera, andrearen askatasuna asko mugatu dau maitasun erromantikoaren ereduak, zeloak legitimau dauz, jeloskor egotea eta posesiboa izatea maitasuna adierazotea dala sinistarazoz, gi-

zonak andren bizitza kontroletea baimenduz eta harreman osuntsuak murriztuz.

Horreri gehitu behar jako, andreak gizona "behar" dauala sinistarazo gura deuskula erromantizismoaren mitoak. Honek andren autonomia mugatutea eta andra guztiek euren osotasuna ziurtatuko daben bikote ideala topetea dakar, benetako zoriontasuna holan bakarrik eskuratuko balitz lez.

Beste alde batetik, erromantizismoak heterosexualidadea aukera bakar moduan aurkezten dau, beste harreman motak bazterrean itxiz. Heterosexualidadea dan eraikuntza sozial eta kulturala betiketuten dau, txikitatik beste aukerarik ez balego lez heziz umeak. Gainera, maitasun eredu honek sustatzen dituan harremanak heteroak izateaz gain mono-



gamoak izan behar dira, hau da, persona biren arteko harremanak eta marko horretatik ateraten dan edozein harreman mota seinalau eta gitxiesten da.

Gainera, maitasun erromantikoak harremanak hierarkizatzen ditu, bikote harremanak beste harreman guztien gainean kokatuz. Holan laguntasuna eta beste harremanak alboratzen irakatsi deuskue, bikotea zentroan ipiniz. Egitura patriarkal honek errudun sentiarazoten gaitu bikoteakidea gure bizitzaren erdigunetik atera-

ten dogunean. Gure bizitza persona bakar bat zaintzera bideratzen dau maitasun egitura honek.

Amaitzeko, maitasun mota hau idealizau eta perfektua balitz lez saltzean deuskue. Gainera, maitasunaren izenean hainbat indarkeria sufridu eta justifikau egiten dira. Sufridutea maitasunaren parte dala eta maitasunak min emotea "normala" dala sinistarazo deuskue, maitasunak danagaz ahal dauala erakutsiz. Holan, erromantizismoaren izenean estali dira hainbat indarkeria eta



andranako posesibotasun eta kontrola, maitasunak dana justifiketan ei dau-ta.

Horregaitik, guk maitasun eredu zaharkitu eta matxista hau deseregi, eta bardintasuna eta errespetua oinarri daukazan maitasun eredu aldarrikatuten dogu. Bikote harremanak daukien prestigioagaz amaitu eta beste harreman motei merezidu daben garrantzia emon. Bikotean zentretan ez diran bizitza ereduak sustatu eta lagunen arteko zaintzea bultzatu. Feminismoaren bidez, guztiz matxista dan maitasun erromantikoaren ereduagaz amaitu, eta maitasun eredu aske eta anitzago bat lortu arte burukatuko dogu.

Gora borroka feminista! Fuck San Balendin!



## AGENDA

**ZEZEILAK 17**  
**ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Martiaren 1ean izango dan Lamino Egunekeo bazkarirako izen-emotea zabalik <https://labur.eus/LaminoEguna25> estekan, hilaren 19ra arte.

Apirilaren 4tik 6ra Areatzan izango dan Danspirenaikako Dantza astebururako izen-emotea zabalik. Izena 634 423 539 telefonoan edo [www.aikotaldea.eus](http://www.aikotaldea.eus) webgunean emon.

Arratiako jotea danontzat ikastarorako izen-emotea zabalik. Ikastaroa, Igorren izango da martiaren 9an; Diman, martiaren 16an; Zeanurin, martiaren 23an eta Areatzan, martiaren 30ean. Izena 634 423 539 telefonoan edo [www.aikotaldea.eus](http://www.aikotaldea.eus) webgunean emon.

**BEDIA**

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Amaia Egidazugaz liburutegian.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteke eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 28ra arte, Poema bat askatu ekintzan parte hartzeako epea. Norberak sortutako edo idatzita dagoan poemak liburutegi sarreran dagoan kaiolan sartu.

Martiaren 28ra arte, Euskaraldiaren 4. edizinarako izen-emotea liburutegian edo [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, Kirol erronkak ekimenean parte hartzeako izen-emotea liburutegian. Erronka zezeilaren 5etik garagarriaren 18ra arte, hiru mendi (Burtotza, San Pedro de Atxarre eta Urkiolagirre) igotea da.

Hilaren 23ra arte, bardintasunaren aldeko zineforumeko zezeilaren 24ko saiorako izen-emotea liburutegian.

Apirilaren 11ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea liburutegian.

**DIMA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Martiaren 31ra arte, Dimako Jaietako Pelota Txapelketarako izen-emotea 688 653 473 telefonoan.

**IGORRE**

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Publiikoari arrete: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

17:30ean, Literatur solasaldia Mikel Pagadiren *Bisita* liburuaren inguruan Kultur Etxeko Literaturata txokan.

**LEMOA**

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

19:00etan, Euskaraldia antolatzeko batzorde irekia Kotxepin Kultur Etxean.

**UBIDE**

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Maiatzaren 1era arte edo dorsalak amaitu arte, maiatzaren 31n jokatu da Ubidestroi Trail 2025ean izen-emotea [kronoak.com](http://kronoak.com) webgunean.

**ZEANURI**

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

**ZEBERIO**

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

**ZEZEILAK 18****ARTEA**

19:00etan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) aurkezpena Kultur Etxean.

**ZEANURI**

Enpresa Foroa. 10:00etan, harrerea eta ondoetorria; 10:10ean, Energia Aurrezkiaren Egiaztagiriaren sistemearen sarrerea eta azalpena; 10:40ean, Agente Autonomikoaren papera; 11:10ean, adibide praktikoa fitxa estandarizatu eta berezi baten arrakasta kasua; 11:50ean, zalantzak eta galderak; 12:00etan mokautxoa. Zulaibargo instalakuntzetan.

**ZEZEILAK 19****DIMA**

17:00etan, familientzako txotxongilo tailerra Abaroan.

**IGORRE**

19:00etan, III. Mikroipu Txapelketako gala Lasarte Aretan. Arratiako Berbalagunek antolatuta.

**ZEZEILAK 20****AREATZA**

18:30ean, Areatzako irudia birsortzen. Udalaren irudi korporatibo barrizteko erabakitzeko saioa udaletxean.

**Gitarra elektrikoagaz lagundutako umeentzako ipuin kontaketea Igorren**

Zezeilaren 18an, 17:00etan, Ana Apika ipuin kontalaria eta Intxiru Valbuena gitarra-jolea egongo dira Igorreko Liburutegian, *Ipuinak dantzan*, 3-4 urte bitarteko umei zuzendutako ipuin kontaketa musikatua eskaintzen.

Ipuin musikatu saio honetan "berbek eta notek alkarregaz egingo dabe jantzan". Musikariak, gitarra elektrikoak jo eta kanta batzuk abestuko ditu eta Ana Apika kontalariak, musikaz lagundutako istorioak kontauko ditu.

**DIMA**

18:30ean, Sos Kantak Arriskuan telebista saioaren emonaldia udaletxeko plazan.

**IGORRE**

18:30ean, Leire Vargasen *Bihotz-museo bat* liburuaren aurkezpena Axular Herriko Tabernan.

**LEMOA**

17:30ean, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta, *Alzheimer: la enfermedad del olvido* berbaldua jubilduaren alkarte lokallean. Berbaldiaren ostean, kopautxoa egongo da.

**ZEZEILAK 21****AREATZA**

17:00etan, Emakumezko Gomazko Paleta EHko XI. Elite Txapelketako partidua. Martin-Ruiz de Azua vs Salanueva-Eizmendi. Murillo-Diez vs Zulaika Gorostiaga.

**ARTEA**

19:00etan, Jon Fanoren *Herri ekimen legegilea. Gutxienekeo pentsioa=Gutxienekeo soldata* berbaldua Herriko Bentan.

**DIMA**

Zuhaitz Eguna. Eskolako umeak Zuhaitz Zumeltzako udal basoetan bertoko zugatzak landutako ditue.

**IGORRE**

19:00etan, Arratiako Musika Eskoleak eta Udalak antolatuta, *Eguzkilo* Arratiako Musika Eskolea eta Elorriko Musika Eskolearen kontzertua euskal musika tresna tradizionalakaz Kultur Etxean.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldearen eski jardueraren Baqueira Bereten, hilaren 21etik 23ra. 18:30ean, Igorreko futbol zelaitik eta 18:40ean Lemoako eskoletatik urten.

**ZEANURI**

19:00etan, *Lurra badu eskubiderik?* Iñaki Lasagabasterren berbaldua Eguzkiolan.

**ZEZEILAK 22****ARTEA**

18:00etan, Eleizalde Jubilatuta eta Pentsionisten alkartearen urteko Batzar Orokorra frontoan.

**IGORRE**

10:00etan, Makatzak Arratiako Ekologistak-ek antolatuta, zugatz landaketea. Eskularruak eta atxurra eroan. Urbieta parkean.

10:00etan, EH Bilduren II banduz indartutako lansaiola institutuan.

20:00etan, Txalo Produkzioak-en *Arizona* antzezlan Lasarte Aretan.

**LEMOA**

09:00etan, Auzolana Karabie Gaztetxean.

20:00etan, *Mantalingo alaba* poesia errezitaldi musikatua Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEBERIO**

11:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldua, tranpen barritzea eta erakargarri barrien banaketea Hogar-ean.

**ZEZEILAK 23****ARTEA**

09:00etan, Mikel Deuna jubilduaren alkarteak antolatutako ibilbidea: Plazea-San Migel txiki-Eleixabeiti; 12:00etan, txixi-burduntzia Eleixabeitin.

18:00etan, Jai Batzordea Kultur Etxean.

**BEDIA**

Zuhaitz Eguna. 10:00etan, plazan alkartu San Lorentzora joateko zugatzak landatzeraz. Ostean txixi-burduntzia. Udala arduratuko da sua eta zotzak egon daitezkan. Txorizoa eta ogia bakotzak berea eroango dau. Umeak heldu bategaz joan behar dira.

**IGORRE**

10:00etan, Arratiako Euskera Taldearen lehenengo batzarra Kiñu Gaztetxean.

17:00etan, zinea, *Finnick, un monstruo en cada casa*; 19:30ean, *Babygirl* Lasarte Aretan.

**ZEZEILAK 24****BEDIA**

17:00etan, bardintasunaren aldeko zineforumak liburutegian.

**LEMOA**

10:00etan, Txixi-burduntzia eguna. Ibilaldia jubilduaren egoitzatik Aistira eta bertan txixi-burduntzia egongo da. Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta.

18:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldua, tranpen barritzea eta erakargarri barrien banaketea jubilduenean.

**ZEZEILAK 25****AREATZA**

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

**DIMA**

18:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldua, tranpen barritzea eta erakargarri barrien banaketea udaletxeko pleno aretoan.

**IGORRE**

18:30ean, Arratiako saharaiaren alkarteak Hamada Hataben sahararen egoerearen gaineko berbaldua Axular Herriko Tabernan.

**ZEZEILAK 26****DIMA**

17:00etan, familientzako txotxongilo tailerra Abaroan.

**IGORRE**

18:00etan, *Vidas irrenovables* dokumentala eta ostean eztabaidea, Lasarte Aretan. Makatzak-ek antolatuta.

**LEMOA**

18:30ean, *Ipuin hegalariak* Maider Alcelayren umeentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 27****DIMA**

18:00etan, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldearen *Momotxorroak* dokumentala eta berbaldua. Eskolako kaman.

**ZEZEILAK 28**  
**ARANTZAZU**

21:30ean, bariku rockeroak eta mozorro gaua. Jardín inferno taldearen musika saioa Herriko Tabernan.

**ARTEA**

Aratusteak. 16:00etan, jaialdia. Eskolako ikuskizuna, txokolatea eta musika plazan; 19:00etan, kalejire eskolako guraso alkarteak eta Kokomarroak-ek antolatuta.

21:30ean, Intxuren kontzertua Herriko Bentan.

**DIMA**

18:00etan, Bariku txiki. Bihar taldearen *Harrizko ipuinak: Tartalo eta Sorginak* txotxongilo emonaldia Abaroan.

**BEDIA**

Iñauteri Txiki. 18:00etan, desfilea, ludotekatik plazara, ludotekako umeak; 18:15etik 19:15era, *Ipuinak putzen* ipuin kontaketea, Elssie Xalbador eta Keko Salvadorren eskutik.

**IGORRE**

16:30etik 17:45era, lehenengo disko festa Esna gazte-gaz, gero txokolatea. Guraso alkarteak antolatuta.

19:00etan, Makatzak taldeak antolatuta, Mirene Begiristain Zubillaga eta Amaia Pérez Orozcoren berbaldua *Amalurraren defentsan, ekofeminismoa* Kultur Etxean.

**UBIDE**

Podologo joango da Ubidera. Izena emon behar da aurretik udaletxeko orrian.

**ZEANURI**

Inauteri festa. 17:00etan, altxorraren bila; 18:30ean, mozorro desfilea; 19:00etan, txokolate ogitartekoa danontzat. Plazan.

**ZEBERIO**

Aratuste jai. 18:00etan, txokolate jana; 18:30ean, desfilea eta 19:30ean, DJ-a. Plazan.

**MARTIAK 1****AREATZA**

Lamino Eguna. 09:30ean, mendi urtekeria eleizako portikutik urtenda, hamaiketako eta saldea egongo dira; 13:00etan, mozorro desfilea Gudarien Plazatik Hotelera Mariachi Azteca de Flor Fernandezek alaituta; 15:00etan, baba-jana Areatzako Hotelean; 17:30ean, Primo Bayo disko festa. Bazkarirako izena aurretik emon behar da <https://labur.eus/LaminoEguna25> estekan.

**DIMA**

Egun osoko jai. Txuxoak: alkateak aginte makilea emon, musika herritik, bazkaria, bingoa, Txuxo erretea...

**IGORRE**

Inauteriak. 12:30ean, kalejire herrian zehar, Garbetik hasita; 15:00etan, herri bazkaria eskolako aterpean; 17:00etatik 20:00etara, erromeria Beranduegi taldeagaz. Bitartean, sari banaketea.

**LEMOA**

17:00etatik 20:00etara, Haurrentzako Inauteri Festa kiroldegian: txiki txokoa, makillaje gunea, jolasak, *photocall*-a, txokolatea, tailerrak, diskofesta... kiroldegian.

19:30ean, poteo musikatua Berakatz musika taldeagaz. Jubilaueatik hasita.

**UBIDE**

Inauteriak. 17:00etan, kalejire plazan hasita; 18:00etan, desfilea plazan, ostean sari banaketea; 20:00etan, parrilladea eta musika. Mozorroen gaia: gorria.


**MARTIAK 2****IGORRE**

17:00etan, zinea, *Flow*; 19:30ean, *Itoiz, udako sesioak* Lasarte Aretan.



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

#### LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

#### LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

#### KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

#### SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoira. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

### EMOTEN DOT

56 m<sup>2</sup> lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

### LANA

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamenez ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusan irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingeleseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

**Areatzako Udalak emondako Dolu bat eta dolu bi liburuaren ale bana.**


Anuska Emaldi (Zeanuri)  
Joserra Undagoitia (Dima)



2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Arizona antzezlerako.**

Edurne Landajo (Zeanuri)  
Oihane Goioaga (Bilar)




begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)



**Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)**







# BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

## 2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

[begitu.eus](http://begitu.eus)



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)